lec9798_2a.gif

ANGELUKO IKHASLEAK
1997-98 ko IKHAS-URTEA
OSOGUNEKO ERAKHASKUNTZA

BIGARREN ERAKASPENA 

ELHEKETA: ASTE Huntako solas-gaia

1- Zer zen neskato ohia?
2- Saldak zertako gustu bitxia zuen?
3- Etxeko anderea tenpe xartu zena?
5- Zer idatzi zuen neskato ohiak?

(II)

## NESKATO OHIA

Aspaldiko errana da, baginaki okinak gure ogia nola egiten duen, ez ginezakela ogi mikorik jan... Zenbaitek ikasi omen zuten behin jan berria zuten salda zertarik egina zen.

Bazkaltiar andana bat bildua zagon mahain eder eta aberats baten inguruan. Neskatoak salda ekarri... Salda jastatu orduko, bazkaltiar guziak elgarri beha: halako gostu bitxi bat kausitzen zioten saldari... Bizkitartean denek iretsi zuten deusik erran gabe aintzinerat eman zitzaien guzia.

Bainan sukaldetik bertze deusik ez heldu. Etxeko andereak, pazientzia labur, badoa bixi-bixia sukalderat.

Oren laurden baten buruan, etxeko anderea ez oraino ageri. Nausia badoa ere sukalderat, zer gertatzen den jakin nahiz. Bainan minutak iragaiten... eta nausia ere gibelera ez heldu...

Bazkaltiar guziak harrituak zauden. Bulta handi baten buruan, ixtripu zerbait bide zela oro badoatzi sukalderat.

Zer ikusi zuten sukaldean? Lurrean zabal-zabala etxeko andrea, flakatua: haren aldean belauniko nausia ari eta ari bere emaztea bere baitarazi beharrez.

—Zer da? Zer gertatzen da? diote galdegiten bazkaltiarrek nausiari.

—Behazue, diote xoilki erraiten nausiak, pareta esku batez erakutsiz.

Hurbildurik, denek hauxe irakurri zuten: "Garratoin salda jana duzuenaz geroz orai kokelan kausituko duzue gatu-saltsa. Ez adiorik. Zen neskato ohia".

Erran gabe doa neskato maltzurrak lekuak hustu zituela handik... Bazkaltiar guzien sabelean garratoin salda ari zen goiti eta beheti, bainan denek nahiago ukan zuten gaturik ez igorri garratoinaren ondotik.

33- EGON: rester - Indicatif Imparfait

Ni nindagon (Je restais)
Hi hindagon (Tu restais)
Zu zinauden
Hura zagon
Gu ginauden
Zuek zinaudezten
Hek zauden etc.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31- Baginaki . 32- Ginezake
33- Zagon . 34- Zitzaien
35- Badoa .

31- JAKIN . Eventuel (suppositif) / O.S.

Nik banaki : si je le savais
Hik bahaki : si tu le savais
Zuk bazinaki : si vous le saviez
Harek balaki : s'il le savait
Guk baginaki : si nous le savions
Zuek bazinakite : si vous le saviez
Heiek balakite : s'ils le savaient.

32- UKAN - Conditionnel futur.

Objet singulier.

Nik ukan nezake (Je l'aurais)
Hik " hezake (tu l'aurais)
Zuk " zinezake (vous l'auriez)
Harek " lezake (il l'aurait)
Guk " ginezake
Zuek " zinezakete
Heiek " lezakete etc.

Objet pluriel

N. ukan nitzazke : je les aurais
H " hitzazke : tu les aurais
Z " zinitzazke :
H " litzazke :
G " ginitzazke :
Z " zinitzazkete :
H " litzazkete : etc.